

IDEIA:

Gure ingurunean, begi bistakoa da kirolak eguneroko bizitzan duen garrantzia eta eragina. Gero eta pertsona gehiagok aukeratzen dute gimnasioa kirola egiteko leku; eroso baita eta eguraldiaren menpe egon beharrik izan gabe, ariketa fisikoaz gozatzea ahalbidetzen duelako. Hori dela eta, eremu horiei ikuspegi ekologikoago bat ematea nahitaezkoa dela iruditzen zaigu eta horretan murgildu gara. Egungo ereduaren aldean, guk sortu nahi dugun bezelako, gimnasio berritzaile horiek funtzionatzeko beharrezkoa duten energia sortu eta ekoizten dute, eta ondorioz, beste energia-iturri kaltegarrien eragin kezkarriak gutxitzen laguntzen dute. Nahiz eta Espainia-mailan jadanik eskuragarri dauden gimnasio berriztagarriren bat aurki ditzazkegun, hala nola, “Move Watts” izenekoa, gure inguruan falta direla sumatu dugu.

Eredu ekologiko hori sustatzeko asmoz, proposamen bat egitea bururatu zaigu, eta horretarako, “Energym” izeneko gimnasioa sortu eta jarraian, haren funtzionamendua azalduko dugu.

Halako zerbait egitea da gure asmoa:

